



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteartea
2010-02-02**

VIII. URTEA 1.918. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Fiskaltzak bost auzipetuentzat absolutzioa eskatu du, berriz ere

'EGUNKARIA AUZIA' Miguel Angel Carballo fiskalaren ustez ezin da frogatu 'Egunkaria' ren atzean ETA zegoenik

BABESA Gipuzkoako Batzar Nagusietako hainbat kidek auziak ez duela «oinarri juridikorik» diote 3



Baliarraingo plaza oinezkoentzat bakarrik izango da datozen hilabeteetan. I. GARCIA

HERRIA HOBETZEKO DIRU LAGUNTZAK

AZPIEGITURAK Landagipuzkoa 32 egitasmoaren baitan kokatzen da Larraulen, Gaztelun eta Baliarrainen lanak egiteko jasotako dirua 7

Pello Odriozola presoaren askatasuna eskatu dute

TOLOSA 200 bat lagunek manifestazioa egin zuten herenegun Triangulo plazatik abiatuta; 22 urte daramatza espetxean Odriozolak 6

Herrikideak ez dira oso fin ibili Nafarroako Bertsolari Txapelketan

LEITZA 'Luze' sailkapen orokorreko hamargarren postuan da oraingoz 5

Bertsolarien eta aizkolarien saioak egun nagusia iritsi bitarte

TOLOSA Bihar izango da San Blas eguna; bien bitartean ekitaldi ugari dituzte auzoan 6

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA
Euskalduna, Denona eta Denontzat
Proiektu bateratua, berritzailea, inguruan txertatua
JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA

Matrikulazio epea: Otsailaren 1etik 12ra

Fleming ikastetxea.
4. urte Hezkuntza Arnoan (2-6 urte)
Taher Hezkuntza Arnoan (6-12 urte)
Tel.: 943 69 25 12 • Tel./Fax: 943 69 14 13
012277oa@hezkuntza.net

Emiobea & H.I.T. Villabona
Emiobea ikastetxea.
Derriogorriko Bigarren Hezkuntza Arnoan (12-16 urte)
Tel. fax: 943 69 37 33
012932oa@hezkuntza.net

Inauterietako mahaiak eska dezakezu!

- Entsaladak
- Plater konbinatuak
- Kazuelak
- Oilasko errea

ERROTA taberna

Deitu: 943 248 489

Otermin garaile Abadiño A-rekin, 600 kiloko Euskadiko Sokatira Txapelketan



Abadiño A taldeak irabazi zuen larunbatean Aramaion jokaturako saioa; tartean Lander Oterminek. HITZA

Sokatira » Ibarako neska berriz, 540 kiloko hirugarren jardunaldia izan zuten eta laugarren egin zuten.

ERREDAKZIOA

Abadiño A taldeak jantzi zuten pasa den larunbatean 2010. urteko Euskadiko Goma Gaineko Sokatira Txapelketako gizonezkoen 600 kiloko txapela. Ibarako Lander Oterminek Abadiño taldearekin tiratzen du eta esan behar da talde bizkaitarrak finaleko txanda eta tiraldi guztiak irabazi zituela nagusitasunez.

Gizonezkoen 600 kilo finalean sei talde hauek lehiatu ziren: Amaiur (Amaiur, Nafarroa Garaia), Abadiño A eta B (Abadiño, Bizkaia), Sokarri (Arrigorriaga, Bizkaia), Ñapurak (Ezpeleta, Lapurdi) eta Berriozar (Berriozar, Nafarroa Garaia).

Txapela erabaki zezakeen txanda finaleko bosgarrena izan zen eta Abadiño A-k eta Amaiurrek jokatu zuten. Bi tiraldiak, ordea, Abadiño irabazi zituen, ohiko soka-kolpea erakutsiz.

Amiurrek lortu zuen bigarren postua, sailkapeneko ligaxkan bezala. Abadiño A izan ezik, gainerako lau taldeak mendean hartu zituen. Lehenik Sokarri gailendu

zitzaien, eta, hurrenez hurren, Ñapurak, Berriozar eta Abadiño B. Ñapurak taldeak eman zion lanik handiena Amaiurri. Sailkapen ligaskan ere hirugarren sailkatu ziren lapurtarrak.

Ibarakoak, laugarren

Emakumezkoen dagokionez, Badaiotz taldeak irabazi zuen 540 kiloko hirugarren jardunaldia. Badaiotz txanda eta tiraldi guztiak irabazi zituen, indar zahutze handiegirik gabe.

Sailkapena hauxe izan zen: Badaiotz (Gasteiz, Araba), Beti Gazte (Lesaka, Nafarroa Garaia), Ibarra, eskualdekoa eta Sakana (Arbizu, Nafarroa). Aurreko bijardunaldie-

Tolosa-Ibarako bi taldeek irabazi dute

Xakea » Gipuzkoako ligako laugarren saioa jokatu zen asteburuan eta eskualdeko bi taldeek 0-4ko emaitza garaipena lortu zuten.

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Gipuzkoako Xake Ligako laugarren txanda jokatu zen. Tolosa-Ibarako bi taldeak Donostian izan ziren eta emaitza bikainak lortu zituzten. 0-4 irabazi zuten biek, puntu guztiak eskuratuz. A taldean Xabi Mujika,

Migelmari Baroja, Andres Bustamante eta Jokin Mendiak irabazi zuten eta B taldean Ramon Etxeberria, Carina Gonzalez, Danel Intxaurren eta Mikel Arechagak. Aipatzekoa da lehen faserako txanda bat falta den arren A taldea dagoeneko sailkatu dela igoera faserako. Gainera, orain arteko txanda guztiak irabazita, aski du datorren astean berdinketa eskuratzeko multzoko lehen postuan amaitzeko. Bestalde, aurreko astean B taldeari ikusi zitzaion hobekuntzak merezitako garaipena ekarri du azkenean. Eta igoera faserako sailkatzeko aukerarik ez duen arren datorren astean beste emaitza on bat eskuratzeko espero da ligari amaiera polita emanaz.

Bestalde, igandean Tolosaldeko Eskolarteko Txapelketa hasi zen. Eskualde osoko eskoletako 53 jokalari parte hartu zuten lehen inguruan urrezko katea bilatu da. J. Z. inzialekin. Harremanetan jarzeko deitu 678 47 66 13 telefono zenbakira.

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Katea.** Amezketako Zazpi-Itturri inguruan urrezko katea bilatu da. J. Z. inzialekin. Harremanetan jarzeko deitu 678 47 66 13 telefono zenbakira.

» EUSKADIKO SOKATIRA TXAPELKETA

Larunbateko tiraldiak

Gizonezkoen 600 kiloko

1. **Abadiño.** 6 puntu (15 tanto).
2. **Amiur.** 5 puntu (12 tanto).
3. **Ñapurak.** 4 puntu (9 tanto).
4. **Berriozar.** 3 puntu (6 tanto).

Emakumezkoen 540 kiloko 3. jardunaldia

1. **Badaiotz.** 12 puntu.
2. **Sakana.** 8,5 puntu.
3. **Beti Gazte.** 6,5 puntu.
4. **Ibarra.** 3 puntu.

K Kirol emaitzak

PILOTA

Binakako Txapelketa Nagusia

LEHEN MAILA	
Oinatz Bengoetxea-	
Otxandorena	18
Martinez de Irujo-Beroiz	22
BIGARREN MAILA	
Olazabal-Arruti	22
Mendizabal-Argote	20
Saralegi-Eskudero	12
Aritz Lasas-Merino	22

Euskal Herriko Liga

KADETEAK	
Gure pilota	22
Onsalo-Aldaregia	19
Amurrio	18
Xabier Jaunarena	9

Lezamako txapelketa

NAGUSIAK	
J. Jaunarena-Lopez	15
Atxotegi-Bengoetxea	22

Nafar Jokoak

BENJAMINAK	
N. Eskudero-J. Eskudero	17
Aldabide C	18
ALEBINAK	
J. Lezea-B. Altzelai	14
Zugarralde B	18
J. Illarregi-B. Billabona	18
Beti Onak B	16
INFANTILAK	
X. Zubiria- A. Eskudero	16
Beti Onak A	18

Euskadiko txapelketa

KADETEAK	
E. Labaka-J. Elustondo	18-22
JUBENILAK	
Ibai Arratibel	22-21
X. Urbieta-T. Zinkunegi	5-22
22URTE AZPIKOAK	
Jon Urbieta	5-22
O. Apezetxea-J. Otaegi	15-22
SENIORRAK	
Jon Ander Albisu	22-9
SENIORREN OHOREZKO MAILA	
Joseba Senperena	22-6
U. Renobales-X. Telletxea	15-22

Udaberri txapelketa

KADETEAK	
Galarraga-Arregi	22-19
Ceberio-Balerdi	22-7
JUBENILAK	
Gorostidi-Gurrutxaga	22-10
Egiguren-Galarraga	9-22

Labaka-Mugika

SENIORRAK	
Perez-Mugika	11-22
Barandiaran-Mattin	15-22

Euskalerriko liga,

paleta goma neska	
S. Aristorena-I. Agirre	30
Irazustabarrena-Mendizabal	13

FUTBOLA

Erregional Ohorezko Maila

Ordizia - Tolosa CF	1-0
SAILKAPENA	
1. Zarautz (41p.); 2. Pasajes (41p.);	
3. Aurrera de Ondarra (38p.); 4.	
Tolosa CF (32p.)	

1. Erregional Igoera Fasea

Gazteak F. T. - Amaro	4-0
SAILKAPENA	
1. Allerru B (9p.); 2. Bergara (7p.); 3.	
Lengoaok B (6p.); 8. Amaro	(4 p.)

Intxurre - S. Tomas Lizeoa

0-2	
SAILKAPENA	
1. Irun (10p.); 2. Oiarzun K.E.B	
(7p.); 7. Intxurre (3p.)	

ARETO FUTBOLA

Nazional B Maila	
Trsp. Lakunza - Goierri K.E.	7-4
Laskorain - Jarrilleros F. S.	4-2

SAILKAPENA	
1. Laskorain Ikastola (39p.); 2.	
Concepto-Creattech (34p.); 3. Alle-	
rru Algeposa (33p); 10. Transpor-	
tes Lakunza (21p.)	

SOKATIRA

Euskal Herriko Txapelketa

GIZONEZKOAK, 600 KILO	
1. Abadiño A (6 puntu); 2. Amaiur	
(5 puntu); 3. Ñapurak (4 puntu).	
EMAKUMEZKOAK, 540 KILO,	
HIRUGARREN OROKORRA	
1-Badaiotz (9 puntu); 2. Sakana (4	
puntu); 3. Beti Gazte (4 puntu); 4.	
Ibarra (0 puntu).	

SASKIBALOA

Lehen Maila	
Tabirako Baque	67
Take Bidebide Ibiz	51
SAILKAPENA	
1. Bidegintza Cespa (11-4); 2. Padu-	
ra (9-6); 3. Seky.es (9-6); 10. Take	
Bidebide Ibizia (4-11).	

Laburrak

Jai Batzordearen bilera etzi, Kultur Etxean

INAUTERIAK ● Jai Batzordearen bilera izango da etzi, 19:00etan Kultur Etxean. Inauteriei buruz hitz egingo dute, danborradaren eta karroza zuzenbideen zozketaren inguruan, besteak beste. Herritar guztiak zabalik izango da bilera. Bestalde, Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako izena emateko aukera badago oraindik. Kultur Etxean edo Udalaren web orrian (www.tolosakoudala.net) eman beharko da izena, ostirala, hilaren 5a, baino lehen. Izena eman zenebaki bat jasoko dute parte-hartzaileek, eta hori emanaldian erakutsi beharko dute.

Familientzako bilera gaur, Orixe Institutuan

HEZKUNTZA ● Orixe Institutuan, 2010-2011 ikasturteari begira, familientzako informazio bilera egingo dute gaur, 18:30ean. DBHn izena eman nahi dutenentzat zuzendua izango da, eta ikasketxeak duen ikasketa eskaintza azaltzeaz gain, ikasketxeo eraikinak eta instalazioak gertutik ezagutzeko aukera izango da.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

- OSASUNA.**
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
 Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain
 Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Oresa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdi: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbola: 943 006900
Amarozko dispen. 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosalde bus: 943 650621
Leitzarar autob. 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Iurramendi egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474

'Egunkaria'-ren atzean ETA zegoela ezin dela frogatu esan du fiskaltzak

'Egunkaria auzia' »

Defentsaren ustetan, auzipetuek ez zuten delitirik egin eta auzian ez da haien aurkako frogarik azaldu.

ERREDAKZIOA

Euskaldunon Egunkaria-ren atzean ETA zegoela ezin dela egiaztatu esan zuen atzo fiskaltzak, Egunkaria auzia-ren seigarren saioan, eta bost auzipetuen (Martxelo Otamendi, Iñaki Urija, Joan Mari Torrealda, Joxe Mari Auzmendi eta Xabier Oleaga) akusazioek ez dutela indarririk. Horregatik, bostak absolbitu eta kasua artxibatzeko eskatu zuen. Auzipetuek eta lekuok deklaratu ostean, bi aldeek ondorioak aurkeztu zituzten atzo, Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalen.

Susmoak eta akusazioak bai, baina halakorik erakusten duten frogarik ez du ikusi Miguel Angel Carballo fiskalak Egunkaria-ren auzibidean akusatuen kontra, ez ahoko epaiketa hasi aurreko prozeduratan, ez ahoko epaiketan. «Milaka folioren ondoren akusazioak agiri gutxi batzutarra mugatzen dira», adierazi zuen atzo fiskalak, bere ondorioak epaimahaiaren aurrean irakurtzean. Agiri horiek ustez ETARI atzemandanda Guardia Zibilak aurkeztutakok lirerateke, eta horietan jasotzen dena ere «oso ahula» dela nabarmendu zuen Carballo.

'Egunkaria' ETAre zerbitzura ari zela frogatzen duen ezker du ikusi fiskalak epaiketan

Defentsaren perituek itzulpenak gutxietsiz esandakoa ontzat eman du, klabebatuz okerrak direla agertu, eta, gainera, agiri horietan agertzeak inork ETArekin harremanik duela frogatzen duenik ukatu du. Bost auzipetuen izena on eta haien ibilbide profesionala, berriz, aintzat hartzeok direla iritzi dio fiskalak.

Azken batean, Egunkaria ETAre zerbitzura ari zela frogatzen duen ezker ez dela epaiketara ekarri uste du Carballo eta errugabetzea eskatu du berriro auzipetuentzat. Auzibidean ere artxiboa eskatu zuen fiskalak, baina Espainiako Auzitegi Nazionalako epaimahaiak ez zuen eskaera onartu.

Herri akusazioen argudioak

Fiskalaren aurretik mintzatu ziren herri akusazioak, hau da, Dignidad y Justicia eta AVT. Irigarri zuten bezala, 12 eta 14 urte arteko kartzelatu gisa eskaera egin dituzte auzipetuzako, eta, funtsean, ahoko epaiketa hasi aurreko argudioak



Argentinatik ere babesa adierazi diete Egunkari-ko auzipetuei. Irudian, Maiatzeko Plazako Amen Elkarteko kideak. HITZA

utsi diete, egunotan aretoan esan eta entzundakoez eraginik izan ez balute bezala.

Lehenaren abokatuak, auzibidean zehar Juan del Olmo epaile instrukturak eta Guardia Zibilak egindakoak egokiak eta zilegiak izan direla iritzi dio, eta ukatu egin zuen torturarik edo bestelako eskubideen urraketerik egin zela. Bestetik, Guardia Zibileko perituek emandako azalpenei eta haiek ustez ETARI atzemandako argiriei egindako interpretazioei estu-estu lotu zitzaion Dy'ko abokatua, eta Egunkaria ETAK sortu zuela berretsi zuen. Ildo horretatik, Joan Mari Torrealda, Txema Auzmendi eta Iñaki Urija horren jakitun zirela adierazi du, eta Martxel Otamendi Egunkaria-ko zuzendari ETAK hautatu zuela argudiatzeko Uriaren onespina zuela. Dy Jren iduriko defentsaren lekuokotzak ez du balio izan auzipetuek ETArekin lotura zutela ezeztzeko.

Auzipetuek ETARI men egiteko prest zudelako iritzi dio AVTK

AVT ordezkatzen duen abokatuak ere bide beretik aritu zuen. Guardia Zibilak emandako argudioei itxiltxian jarraituz, Egunkaria ETAK sortu zuela eta haren tresna zela baieztatuz. Areago, auzipetuek horren berri bazutela eta ETARI men egiteko prest agertu zirela iritzi dio. Torrealda iri zuzendari izateko proposamena ETAK egin ziola adierazi zuen, proposamen horrekin joan zitzaizkionak Carlos Santamaria eta Martin Ugalde izan zirenean. Baieztapen horietarako guztietarako Guardia Zibilak ustez ETARI atzemandako argiriak eta Guardia Zibilak haien gainean egindako interpretazioak erabili zituen, aurrez Dignidad y Justicia bezala. Epai zigortzailea eskatu zuen amaitu zuten hitzaldia.

«Euskal gizarteak badaki akusatuek errugabe direla»

Arratsaldean defentsako abokatuak txanda izan zen. Jose Mari Elosua mintzatu zen lehendabizi, eta Egunkaria-k gizartean babes handia duela azpimarratu zuen. «Euskal gizarteak badaki akusatuak errugabe direla», esan zuen, eta epaileek ere horixe ebaztuko dutela ziur agertu zen, «delitirik ez dutelako egin bost auzipetuek».

Haren arabera, epaiketan ere ikusi da ez dagoela loturarik Egunkaria eta ETAre artean, ez finan-

Akusazioek erabilitako txostenen balorazioa egitea epaimahaikideei dagokiela dio Elosuak

tzazio aldetik, ez bestela. Finantzaio aldetik Guardia Zibila, delituk ikusi aurretik, ikerketaren «norabidea erabat aldatzen» ibili zela gogoratu zuen Elosuak, baina frogatu dela dirua herritarrek eman zutela, akzioak eta materiala erositak. Horretaz gain, polizia txostenetan «kontraesanak» agertu direla esan zuen, eta itzulpen gintza «eskan-daluzkoak» izan dela.

Ohartarazi zuen, halaber, akusazioek erabilitako txostenen balorazioa egitea ez dagokiola Guardia Zibilari, epaimahaikideei baizik. Gainera, Elosuaren hitzetan, akusazioek erabilitako txosten gehienek jatorria ez dago egiaztatuta, eta «euskaraz ez dakienak ezin du ulertu horietan dagoena».

Jose Mari Elosuaren ondoren, Felix Cañada defentsa abokatuak Egunkaria eta ETAre artean ez dagoela loturarik esan zuen. «Horrela jarraituz gero, ikastolak izango lirateke akusatuen aukian eseritzen hurrenak, euskara bultzatzen dutelako», adierazi zuen, besteak beste.

Bost auzipetuek azken hitza

Gaur jarraituko du auziak, eta beranduenez bihar amaituko da. Auzipetuek izango dute azken hitza. Bestalde, atzoko saioan, Gipuzkoako Batzar Nagusietako hainbat kidek, tartean Luis Mari Ormaetxea lehen presidenteordeak, babesa agertu zieten bost auzipetuei, eta haiek errugabetzeko eskatu zieten Madrilgo Auzitegi Nazionalari, argudiatuz haien aurkako auziak ez duela «oinarri juridikorik».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Udalak finantzatutako Tichla herriko eraikinaren lanak martxoan amaituko dira

Ibarra » Udal ordezkariak izan dira Saharan orain gutxi balio anitzeko zentroaren obrak nola diren jakiteko.

ERREDAKZIOA

Koldo Cidek, Ibarra Udaleko alkateordeak, eta Itziar Jauregik, Euskara eta Hezkuntza zinegotziak, Saharako Tichla hiria bisitatu zuten berriki. Aipatu herrian egiten ari diren erabilera anitzeko zentroa eraikitze lanen garapena ikusteko joan ziren, hain justu Saharara, izan ere Ibarra Udalak finantzatutako eraikina da. Zentro hau Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan ezaugarri horiek betetzen dituen lehena dela nabarmendu du Udalak.

Udal ordezkariak eraikitzaileekin elkarrizketatu ziren eta honetako proiektua gaur egun zein fasean aurkitzen den azaldu zien eta martxoan prest egon daitekeela ere iragarri zien. Data horretatik aurrera, instalazioak egokitzeko lanak hasiko dira eta altzariak ipiniko dituzte. Udalak, orain, honetarako prestatu duten aurrekontua aztertu behar du.

Cidek eta Jauregik Tichlako ordezkariekin ere bilera izan zuten



Iazko Aste Santuetan ere Saharan izan ziren udal ordezkariak. HITZA

zentro honetan lan egiteko sortuko diren lanpostuak hartuko dituzten pertsona egokienak zein diren ezagutzeko.

Zehazki, aurreikuspenen arabera, zuzendari bat, erizain bat, sukaldari bat, eraikina itxita dagoenerako zaintzaile bat eta garbitzaile bat behar izango dira.

Egonaldian zehar, Ibarra udal ordezkariak Saharako hiri

honetako sendagileekin elkarrizketatzeko aukera ere izan zuten eta hamar kilo sendagai inguru eraman zizkieten. Medikuek, hala ere, mediku-tresneria gehiago behar dutela adierazi zien eta Ibarra-ko Udala ahal den neurrian eskerra horri erantzuten saiatuko dela agindu zien.

Bukatzeko, ordezkariak eskolan izan ziren. Bertako arduradur-

nekin bildu ziren eta instalazioak bisitatu zituzten. «Gabezia handiak dituzte eskolako materialei dagokienez, esate baterako, koardemoak, arkatzak, hiztegiak edo liburutegirako irakurketarako liburuak» behar dituztela diote.

Txelo Romeo eta Mohamed Lagdaf

Bidaia hau Txelo Romeo Ibarra alkatea eta Mohamed Lagdaf Tichlako alkateak maiztasunez mantentzen dituzten kontaktu programaren baitan aurkitzen dela ere argitu dute. «Ekimen honen xedea Saharako hiri honen garapena babestea da eta bi udalerriak 1998. urtetik senidetuta daude. Akordio honetatik abiatuz, Ibarra Udalak ekintza-plan bat diseinatu du herri honi mantentzen laguntzeko», gaineratu dute.

Balio anitzeko zentroak Hirugarren Adineko pertsonen emangodi erreta eta areto ezberdinak egokitzeko dira kultur-jarduerak garatzeko. Bere finantzazioa Ibarra Udalak garapen bidean dau den herrialdeetako proiektuak diruz laguntzeko bideratzen duen aurrekontuaren %aren bidez lorzen da.

Laguntza hori Misio Taldea Ekuadorren aurrera eramaten ari den ekintzetara ere bideratzen da.

Laburrak

Santa Ageda eskean aterako dira Hauspoakoak

IBARRA » Hauspoa Kultur Elkarte-koak etzi, hilak 4, Santa Ageda eskean aterako dira. Aurten Santa Ageda eskea Izaskun auzoan zehar izango dute. Parte hartu nahi duten pertsona guztiei gaur eta bihar 20:00etan udaletxeko sotoan egingo diren entsegetara bertaratzeko deialdia egin diete. Era berean, Hauspoako kideek Kaldereroen festa ere antolatu dute ostialderako, hilak 5. Horiek horrela, Kaldereroen festa 18:00etan hasiko dute. Ijitoen jantziak eta zar-taginak eskuetan San Bartolome plazan elkartuko dira guztiak.

Ohiko osoko bilkura egingo dute bihar 20:00etan

VILLABONA » Villabonako Udalak argitu duenez, ohiko osoko bilkura egingo dute bihar, hilak 3, 20:00etan udaletxeko batzar aretoan. Hauek dira, besteak beste, jorratuko dituzten gaiak: dedikazio eskusiboz Alkate kargua betetzeagatik 2010 ekitaldiari dagokion soldata aldatzeko proposamena, Kutxan Udala ordezkatu duen Kontseilari Orokorra eta horren ordezkoa izendatzea, Haitik EBrekin duen zorra barkatzeari buruzko EB-B/A taldearen mozioa eta Benedikto XVI.a aita santuak preberbatiboaz egiten dituen azalpenen gaineko EHGA Men mozioa.



SARIDUNAK

① Afaria

Tolosako ISASTEGI
sagardotegian
2 pertsonentzako
afaria



Aldaba txiki, 15 A
943 652 964
TOLOSA

Malentxo Arrospide Arrate (Lizartza)

HITZA jarriko da irabazlearekin harremanetan

③ Diskoa

Elkar etxeak eskeinia
Xabier San Sebastian-en
"Ospela" azken diskoaren 4 ale



Javier Kuadrado Heras (Tolosa)
Rosario Arozena Etxeberria (Lizartza)
Martxeli Sagastume Agirre (Alegia)
Patxi Ezeiza Jauregi (Tolosa)

HITZAren Tolosako bulegotik pasa saria jasotzera

② Antzerkirako sarrerak

XABINEITOR

antzezlanerako 2 sarrera pare

Ostailak 5 ostirala
20:30ean • Tolosako Leidor-en

Mari Kruz Iraola Telleria (Tolosa)
Sagrario Sorondo Agirrezabalaga (Irua)

Sarrerak leihatilan



④ Liburua

Elkar etxeak eskeinia
Rai Bueno era Iratz Inziartek
egindako "Fatima" haur liburuaren 4 ale



Maria Jesus Murua Artola (Alegia)
Jesus Maria Irazusta Imaz (Anoeta)
Begoña Altuna Unsain (Lizartza)
Izaso Etxaniz Gorostidi (Tolosa)

HITZAren Tolosako bulegotik pasa saria jasotzera



Eritz Magoa ikuskizun aparta eskaini zuen Areson. GURASO ELKARTEA

Eguraldiak hainbat mozorro jantzi ditu Inauterietan

Areso » Hiru egunetan zehar «ederki» ibili dira herrian barrena Inauterietako ohiturak jarraituz.

ERREDAKZIOA

Areson ere amaitu dira Inauteriak. Leitzakoekin alderatuz, eguraldia izan da tamaina eman ez duena. Ostiraletik igandera hotza, euria eta elurra izan dira protagonista Aresoko Inauterietan.

Hala eta guztiz ere, herritarrek ez dira etxean gelditu eta Aresokolorez mozorroto dute hiru egunetan zehar.

2010eko Inauteriak Guraso Elkarteak eta herriko gazteek antola-

tu dituzte Udalaren laguntzarekin. Denen artean ekitaldi ugari ospatu dituzte asteburuan.

Karroza ongi prestaturik

Inauterietan gozatzeko aukera izan dutela jakinarazi dute Guraso Elkartetik: «Eguraldi txarrarekin igaro ditugu Inauteriguiztiak baino karroza ongi horniturik genuen eta haurrak bertan sartuta ederki ibiligarra hiru egunetan herrian barrena bueltatzea emanez. Azken egunean gainera, ateri egin zigun karroza ateratakoan eta Eritz Magoarekin Eskolako soinketa gela ia bete egin zen. Ondoren herriko bi gaztek trikitixa jo zuten».

Dantzaldia Alaitz eta Gorkarekin izan zen baina aurretik gazteak eskean ibili ziren herrian barna.



Magoa ikusteko aretoa leporaino bete zen. GURASO ELKARTEA



Ander Fuentes, 'Itturri', mikrofonoaren aurrean. Atzean, zutik 'Zili' eta eserita 'Luze' eta Riaño. BERTSOZALE ELKARTEA

Nafarroako Bertsolari Txapelketan leitzarrak kinka larrian aurkitzen dira

Leitza » 'Luze'k ditu aurrera egiteko aukera gehien. 'Zili' eta Riaño, azken hau batez ere, ia Txapelketatik kanpo aurkitzen dira.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Nafarroako Txapelketako orain arteko saiorik jendetsuena jokatu zen igande arratsaldean Aoizen, herriko Kultur Etxean. 150 bertsozale inguruk gozatu zuten Txapelketaren hirugarren azken-laurdenarekin; kalean giro hotza bazen ere, areto barnean tenperatura askoz altuagoa izan zen.

Iazko finalean ozta-ozta sartu ondoren, Ander Fuentes, *Itturri*-k, aurtenera ere Lesakakoan egon nahi duela erakutsi zuen, hura izan baitzen sei bertsolarien artean puntu gehien bildu zituena. Aparteko saioa egin gabe, Leitza irakasle dagoen zubietarra segurua aritu zen, akats nabarmenik izan gabe.

Nolanahi ere, oso pareko ibili ziren bertsolari guztiak eta hori su-

matu zen azken puntuazioetan. Orain arteko estuena izan da, lehenengo eta seigarren sailkatuaren artean 30 puntu eskas izan baitira. *Itturri*-ren atzetik aurten Txapelketara bueltatu den Oskar Estanga sailkatu zen eta hirugarren postua Miel Mari Eloseg, *Luze*, leitzararentzat izan zen.

Garesera begira

Nafarroako Bertsolari Txapelke-

taren lehenengo faseko azken saioa larunbatean izan da Garesen, Udaletxeko erabilera anitzeko aretoan, 17:30etik aurrera.

Saio horretan erabakiko da zeintzuk izanen diren finalaurrekoetarako sailkatuko diren 15 bertsolariak. Hiru sailkatuak aurkitzen dira. Garesen Eneko Lazkoz, Jon Elizetxe, Alazne Untxalo, Xabier Terreros, Estitu Arozena eta Ioar Tainta ariko dira.

» SAILKAPENA

Azken-laurdenak

Aoizko saioa

1- Ander Fuentes, <i>Itturri</i>	380,5
2- Oskar Estanga	376
3- Miel Mari Eloseg, <i>Luze</i>	363,5
4- Saioa Alkaiza	362,5
5- Jose Luis Barberia, <i>Zili</i>	354
6- Diego Riaño	350

Orokorra

Azken-laurden baten faltan

1- Arkaitz Goikoetxea	427,5
2- Xabier Legarreta, <i>Arano</i>	414,5
3- Julen Zelaia	401

4- Oier Lakuntza	389,5
5- Iñigo Ibarra	385
6- Ander Fuentes, <i>Itturri</i>	380,5
7- Oskar Estanga	376
8- Iñaki Aleman	375
9- Aimar Karrika	365
10- Miel Mari Eloseg, <i>Luze</i>	363,5
11- Saioa Alkaiza	362,5
12- Aritz Saragueta	357
13- Jose Luis Barberia, <i>Zili</i>	354
14- Bittor Elizagoien	353,5
15- Diego Riaño	350
16- Iker Gorosterrazu	341,5
17- Ekaitz Astiz	334
18- Egoitz Gorosterrazu	330,5

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA

PEDRO M^o OTAÑO HERRI ESKOLA

Pagoruaño auzoa, 14 - ZIZURKIL

943 6914 78 Postu elektroniko: 012041@hezkuntza.net

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOA
IKAS KOMUNITATEA

JESUSEN BIHOTZAK

KALITATEZKO HEZKUNTZA ELEANITZA,
EUSKARA ARDATZ DELA
JANGELA ETA GOIZ-TXOKOA ZERBITZUAK

Wabon: Berría 55, Tfno: 943692321, Txorri: z/g Tfno: 943692056; Zuzena: Pagoruaño z/g Tfno: 943691275
bb@otano@leizaldea.net www.otano@leizaldea.net



Amarozko dantzarien saioa izan zen herenegun goizean. S. GOMEZ

Bertsolariak eta dantza egun handia iritsi bitarte

Tolosa » San Blas eguna bihar izango bada ere, herenegun ekitaldi ugari izan zituzten, tartean aizkolarien emanaldia.

ERREDAKZIOA

Egun euritsua izan genuen herenegun, baina hala eta guztiz ere giroa berotzen saiatu ziren San Blas-en. Konpenezinen dianarekin hasi zuten eguna eta ondoren, Amaroazko dantzarien saioa ere izan zen.

Salda beroarekin goxatu eta gero iritsi ziren Unai Otaño eta Joseba Otaegi aizkolarien saioa eta

baita Angel Mari Peñagarikano eta Sustrai Colina bertsolariena ere. Eguna Elustondo anai-arreba trikitilarien doinuekin amaitu zuten. Gaurkoan, aldiz, 18:30etik 21:30era Disko Festa izango dute.

Egun nagusia, dena den, San Blas eguna, biharkoa izango da.

» BIHARKO EGITARAUA

■ **11:00.** Meza nagusia ospatuko dute bertako produktuen bedein-kapena eginez.

■ **12:30.** Toka lehiaketa egingo dute auzokoentzat eta elkarte-koentzat.

■ **18:00-21:30.** Elustondo anai-arreba trikitilarien emanaldia.



Jende asko gerturatu zen erroskillak erostera. S. GOMEZ



Pello Odriozolak 22 urte bete ditu espetxean. Euskal presoek bizi duten egoera salatu zuten herenegun Tolosan. A. IMAZ

Pello Odriozola tolosarraren askatasuna eskatu dute

Politika » EPPK-k martxan jarri duen borrokaldiarekin bat egin zuten herenegun Tolosan bildutako herritarrek.

ASIER IMAZ

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak 200 lagun inguru elkartu zituen herenegun Tolosan. Manifestazioa Triangulotik irten zen *Bizi arteko espetxe zigorrik ez. Pello eta besteak kalera. Presoak borrokan Euskal Herria kalera* lelopean. Martxaren amaieran, 22 urte espetxean daramatzan Pello Odriozola tolosarraren askatasuna eskatu zuten.

Odriozola, presoak eta Anza

Manifestazioa 18:00etan hastekoa zen. Ordu horretan hiru ertzain gerturatu ziren Triangulon bilduta zegoen jendearengana, Jon Anzaren argazkia preso batena zela iruditu zitzaielako. Martxa 18:15ean abiatu zen. Ibilbidean zehar Odriozola eta oro har presoan aldeko oihuak entzun ziren; *Non dago Jon?* galdera ere behin baino gehiagotan errepikatu zuten.

Manifestazioa *Eusko Gudariak* abestuz amaitu zen. Aurretik AAMk idatzi bat irakurri zuen. Bertan, euskal presoek bizi duten egoera salatu zuten: «Espainiar eta frantziar gobernuen errepresio estrategiak azken muturreraino

eraman du espetxeetako egoera, gure presoan aurkako presioa eta jazarpena jasanezina bihurtzeraino. Sakabanaketak indarrean dirau, istripuak etengabe eraginez eta hamabost hilabeteen behin senide edo lagun bat hiltzen dute errepidean».

«Pello kalean beharko luke»

Ondoren, Pello Odriozolak espetxean 22 urte bete dituela gogoraztu zuten: «Pellok, beste 40 lagunekin batera, kalean beharko luke, baina mauka azpitik ateratako lege bat medio, bizitza osorako kondenatuta daukate».

Bestalde, Euskal Preso Politikoen Kolektiboak abian jarri duen borrokaldiarekin bat egin zuten Tolosan bildutakoek: «EPPK desagerrarazi nahi dute: presoak pertsona bezala txikitu eta xantxia

politiko gisa erabili. EPPKri izaera politikoa ukatzen dieten bitartean, beraien aurka hartzen ari diren muturreko neurriek agerian uzten dute ukatua zaien izaera bera politikoa dela. Egoera maltzur eta krudel honen aurrean, oinarritzko eskubideen etengabeko zapalketen aurrean, Pello Odriozolak bezalaxe kolektibo guztiak hilabeteetako borrokaldi luze bati ekin dio, Frantziak eta Espainiak eraikia duten Guantanamo honi hortzak erakusteko, eskubideak behingoz errespetatzeko. Ez ditugu inoiz espetxean ditugun lagun eta senide maiteak bakarrik utziko; elkartzuna biderkatzen joango gara, beraien oinarritzko eskubideen urraketa larria han eta hemen salatzen jarraituko dugu eta beraiek abian jarritako borrokaldia gure egiten dugu».



Barran baraualdia amaitu ostean, manifestaziora joan ziren herenegun. HITZA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Aldundiak onartu ditu diru laguntzak Baliarrain, Larraul eta Gaztelurentzat

Azpiegiturak

Landagipuzkoa 32 egitasmoaren baitan jasoko dituzte hiru herriak Diputazioaren laguntza.

IMANOL GARCIA

Foru Aldundiak zenbait proiektu-ri diru laguntza ematea onartu berri du, Landagipuzkoa 32 egitasmoaren baitan. Eskualdeko Baliarrain, Gaztelu eta Larraulgo proiektu banari emango zaio diru laguntza, hain zuzen. Proiektuak Etorlur enpresak kudeatuko ditu.

Plaza eta ingurunea egokitzea

Baliarraini dagokionez, *Plaza eta ingurunearen egokitzapena* izeneko proiektuari diru laguntza ematea onartu du Aldundiak. Proiektuaren exekuzioa kostua 572.670,38 eurokoa da eta zenbateko horretatik 450.000 euroko diru laguntza emango du Aldundiak.

Enparantza oinezkoentzat bakarrik izango da eta beraz ibilgailuek ezingo dute bertatik igaro. Autoak desbideratuko dira herri-guneko etxeetara joateko bideetatik. Egundako bide horiek eginak dauka, bai zentzu batean bai bestean. Bide horietan espaloia egingo dute eta zebra-bideak ere bai. Urbanizazio berria bukatzen ari den bidean 15 autoentzako aparkalekua egingo dute.

Enparantza dena berdindu

egingo da eta udaletxearen aldetik pasillo moduko bat egingo da Zar-tagijatekua arte. Plaza itxita egongo da ibilgailuentzat pibota batekin eta larraldientzako edo zama-lanak egiteko bakarrik irekiko da. Berrikuntza ere izango da, kioskoa eraikiko baitute udaletxearen ondoan, sei metro izango dituena. Plazaren zoruan eta belardiaren ondoko bidean ere galtzada-harria jarriko da.

Obrari hasiera etzi emango zaio eta aurreikusita dago 17 aste iraungo duela. Urbikolan enpresak egingo ditu lanak. Obra hasten direnean plaza moztu egingo dute autoentzako eta saihebidetarako hartu beharko dute ibilgailuek.

Martzelino Dorronsoro alkateak azaldu duenez, herrigunea «asko aldatuko da. Lasaitasuna izango dugu herri erdian adin guztietako herritarrentzat eta bizi kalitatean irabaziko dugu. Haurrak asko ibiltzen dira enparantzan eta inguruan eta arriskutsua izaten da».

Udalak 22.000 euro inguru jarri beharko ditu eta kopuru horrek «asko» suposatzen du Baliarrainentzat, Dorronsorok zehazten duenez: «Legealdi honetako obra izango da. Diru kopuru bat gordezten joaten gara aurrekontuetan gero horrelako obrak ordaindu ahal izateko. Nahiago dugu hirulau obrentzako diru laguntza ematea baino, proiektu nagusi baten zentzuko ematea».



Baliarraingo plaza oinezkoentzat bakarrik jarriko da eta egunduen malda berdindu egingo dute. I. GARCIA

Argindarra konpontzea

Argi indarraren arazoa konpontzea da Landagipuzkoa 32 programaren baitan Gazteluko udalerrirako aukeratu den inbertsioaren helburua. *Elektrifikazioa* da azpiegitura horren izena eta Foru Aldundiak 137.000 euroko diru laguntza emango du, inbertsioak duen 140.086,65 euroko kostuarengainean.

Etorlur enpresak azaltzen duenez, «Gaztelun arazo handiak di-

tuzte argindarrarekin, eta Udalaren lehen tasuna da hau konpontzea. Udalak oso baliabide ekonomiko gutxi dituenez, ezin du berak bere gain hartu proiektua, eta beharrezkoa da hau konpontzea zerbait gehiago egin baino lehenago».

Haurrentzako parkea

Larraulen, Landagipuzkoa 32 programaren baitan, *Haurrentzako parkea* izeneko azpiegitura hautatuta. Haurrentzako parke hori

Urbeltz plazan egingo da. Inbertsioa guztira 58.324,24 euro izango da, eta horietatik 50.000 euro jarriko ditu Foru Aldundiak.

Egun, haurrentzako parkea errepede ondoan dago; «jolas-lekua oso kaltetua dago eta ez du segurtasun araudia betetzen», azaltzen du Etorlur enpresak. Hori dela eta, Udalak eskatu du haurrentzako parke bat eraikitzea belarrezko gunetara, Urbeltz plazaren hasieran hain zuzen.



Eszerreko irudian ikusten den Baliarraingo belardian 15 aparkaleku egingo dituzte. Eskuineko irudian, urbanizazio berriaren ondorengo bidea, laster herria zeharkatzeko erabili beharko dena. I. GARCIA



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

- **Tolosa.** Ipuin kontaketa etzi, hilak 4, Haur Liburutegian 18:00etan.
- **Tolosa.** Alde Zaharreko bizilagunen bilera etzi, hilak 4, Santa Maria parrokiako etxean, 20:00etan, errehabilitazio planari aritzeko, besteak beste.
- **Villabona.** Biltoki jubilatuen elkar-etauren urteko batzarra ostiralean, hilak 5, Txermin Biltokian 17:30ean.
- **Villabona.** Berazubiko igerilekuko abonatuaren bilera larunbatean, hilak 6, Kultur Etxean 20:00etan. Antolatzaileek igerilekuaren etorkizunaz hitz egingo dutela argitu dute.

Antzerkia

- **Tolosa.** Gorringo antzerki taldearen *Xabineitor* antzezlanaren ostiralean, hilak 5, Leidor aretoan 20:30ean.

Hitzaldia

- **Tolosa.** Juan Bautista Aranzaberen hitzaldia Inauteriarri buruz hilaren 5ean, ostirala, Txinparta elkar-eta 20:00etan.

Inauteriak

- **Lizartza.** Ostiralean 14:00etatik 15:00etara herriko eskolak antolatuta mozorro festa egingo dute. Jarraian kalejira ere egingo dute herrian zehar.
- **Tolosa.** Inauterietako Haur Jaialdia izango da larunbatean, hilak 6, Leidor aretoan 16:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Kaldereroetako eta Inauterietako doinuak

TOLOSA ● Udal Txistulari Bandak eta Tolosako Musika Bandak giro polita sortu zuten herenegun Tolosako lurramendi egoitzan. Musikariak, egoitzan bertan bizi direnak eta bere senitartekoei Kaldereroetako eta Inauterietako piezak kantatzeko aukera izan zuten: *Pastelero*, *Pello ziri ziri*, *Bar-*

ratzako pikuak, *Galtzaundi*, *Trilingüe*... Juan Colmenerok konposatutako Tolosako Danborradako pieza ere jo zuten, aurten 50 urte bete dituelako. Donostiako Danborradako piezak jotzeko berriz, perkusio ikasleen laguntza berezia izan zuen bandak. J.SAIZAR

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31980 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>